

## **Euskal lexikografiari ekarri berria: Bourciez-en euskal testuetako lexikoa<sup>1</sup>**

**Jose Luis Ormaetxea**  
EHU

### **1.- Sarrera**

Edouard Bourciez-i zor dizkiogu “Recueil des idiomes de la Région Gasconne” bildumako dokumentuak. Gaskoiez idatzitakoak alde batera utzita, guri interesatzen zaizkigun testuak 150 dira, denak euskaraz idatziak eta Ipar Euskal Herri osoa hartzen dutenak. Testuak 150 badira ere, 138 herritako euskararen berri dugu, izan ere zenbait herritan bi testu baititugu.

Bourciez-en aginduz, 1894 urtean, herri horietako errientek frantsesetik herriko euskarara itzuli zuten *L'enfant prodigue* parabola. Testuren bat edo beste (Pagolakoa, esaterako) fidagarri ez bada ere, oro har esan daiteke lanabes onak direla ikuspegi geolinguistikotik.

Euskal Herriko Unibertsitateak 2002an babestutako ikerketa-proiektu bati esker, Bourciez-en euskal testuak transkribatu, ikertu eta argitaratu ahal izan dira (*Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan. ASJU-ren Gehigarriak*). Aurretik, J. Allières-ek aztertu zituen bere “Petit atlas linguistique basque français «Bourciez»” artikuluan. 20 mapatan, batez ere lexikoari zegozkion 20 ezaugarri aztertu zituen, ikuspegi dialektologikotik ondorio interesgarriak atereaz. Ikerketa-proiektuarena lan osoagoa da, jakina, eta hizkuntzaren alderdi nagusiak ikertu nahi lituzke. Besteren artean, testuetan biltzen den lexikoa aztertzea interesgarria izateaz gain, onuragarri gertatuko da euskal dialektologiarako. Lexikoaren azterketa sakona egitea komeniko litzateke, beraz. Dagoeneko testuetako hiztegia osorik hustua dago, eta hori da gerora egin daitezkeen lanetarako oinarria.

Gure artikulu honetan saiatu gara testuetan agertzen diren lexiko aldetiko berezitasunak aztertzen, eta uste dugu Orotariko Euskal Hiztegiari behin-behineko ekarria egiten zaiola.

Azterketa honetan, testuetan agertzen den lexikoaz arituko gara, honako hauek bereziz: maileguak, lexiko-aniztasuna, hiztegieta lekukotasun urria duten hitzak, hiztegieta

<sup>1</sup> Lan hau 2003ko ikerketa-proiektuko (erref.: 1/UPV 00033.130-H-15286/2003) emaitza da.

agertzen ez diren hitzak, hiztegieta aldaera desberdinetan agertzen diren hitzak, hiztegieta adiera desberdinetan bilduta dauden hitzak eta hiztegieta lokalizazio desberdinarekin bilduta dauden hitzak.

## 2.- Maileguak

Hegoaldean gaztelaniarena bezala, Iparraldean frantsesaren (eta gaskoiaren, biarnesaren...) eragina nabarmena da bai orain eta baita duela mende bat ere. Horixe erakusten digute esku artean ditugun testu hauek. Euskal ondareko hitzak nagusi izanik ere, hamaika dira ondoko hizkuntzetatik hartutakoak. Ez da ahaztu behar, gainera, frantsesetik itzuliak direla testuok.

Zenbaitetan (mailegu zaharretan batez ere) euskaldun guztiok bat gatoz. Testu hauetan agertzen zaizkigun hainbat hitzetan berdin jokatu dugu Ipar zein Hegokoek: *aire, akabatu, arropa, atrebitu, bisitatu, denbora, gastatu, gozatu, juramentu, lore, penatu, tratatu, tripa, zapata...*

Beste mailegu asko, aldiz, frantsesa (batez ere frantsesa, baina baita gaskoia, biarnesa eta, inoiz, espainola ere) jakin gabe, arrotzak gertatzen dira Hegoaldeko euskaldunarendako: *arribatu* 'iritsi', *balentria* 'harrokeria', *bapo* 'harro', *bortako* 'txerri', *dafaila* 'mahai-oihal', *delibero* 'erabaki', *despendiatu* 'xahutu', *erribera* 'ibai', *eskabel* 'aulki', *espantu* 'harrokeria', *fier* 'ausart, harro', *fite* 'azkar', *kartier* 'bazter, herri', *kokin* 'gaizto', *logatu* 'alokatu', *mainata* 'morroi', *malurus* 'zoritxarreko', *maripulis* 'jaka', *mixkandi* 'morroi', *partaiatu* 'banatu', *peritu* 'ahuldu, nahigabetu', *premu* 'oinordeko', *punitu* 'zigortu', *sakre* 'birao', *tireta* 'kajoi, tiradera<sup>2</sup>', *trabesatu* 'zeharkatu', *turnatu* 'itzuli', *uros* 'zoriontsu', etab.

## 3.- Lexiko-aniztasuna

Itzuli beharreko testua hain luzea ez dela kontuan izanik (makina idatzitako orrialde bat, 663 hitzekoa), lexiko aldetik desberdintasun eta aniztasun handi samarra dagoela iruditzen zaigu. Horra datu batzuk: testu bakarrean agertzen diren hitzak 340 dira, eta 89 bi testutan soilik azaltzen direnak. Kopuru handia, benetan. Baina datu hutsa emanda ez da ezer esaten. Hori azaltzeko arrazoiaren artean, bat nabarmena da testu batzuetan ez dela itzulpena hitzez hitz jarraitu, itzulpen libre samarra egin dela alegia. Orduan, frantseseko testuan ez datorren hitz bat sartzen bada, bistan da hitz horrek aukera handiak dituela behin bakarrik agertua izateko. Adibide batzuk emango ditugu argiago

<sup>2</sup> Hiztegi Batuan **kajoi** baztertu eta **tiradera** erabiltzea gomendatzen da.

ikusteko. Iholdiko testu bietatik batek (1300 zenbakia daramanak) besteetan agertzen ez diren 42 hitz dakartza, eta, bat edo beste kenduta, ia denak dira jatorrizko bertsiotik aldentzen direnak: *aberats, adiskide, aitortu, akordu, amultsuki, arto, atrebitu, behi, behin, biluzi, delibero, ederki, egitate, engoitik, erdietsi, eretze, eskaini, estatu, ezagutza, ganbara, garrazki, guardia eman, haizu izan, haragi, histu, lukainka, luze, minata, nagusitu, obratu, otoi, pitar, setiatu, umiltasun, xede, xingar*. Hitz horiek guztiak itzultzaileak<sup>3</sup> (hobeki esan, egokitzaileak) asmatuak dira, ez dira frantsesezko testuan agertzen.

Hendaiako (1208) testuan ere badira itzultzaileak asmatutako hitzak, eta, gutxiago badira ere, baita ere beste testu batzuetan.

Bestalde, hitz bat behin bakarrik edo oso gutxitan agertzearen beste arrazoi bat da lexiko aldetik dagoen barietatea eta aldagarritasuna. Sarri hitz bat itzultzeko herri berean ordain bat baino gehiago izango da, baina itzultzaileak bat (eta kasu urri batzuetan bi) aukeratu du, jakina. Aukerak aukera, zenbait hitzetan desberdintasun handia dago herritik herrira. Adibide gisa, ongi datorkigu testuaren izenburuko *prodigue* hitza. Oker ez bagaude, 25 ordain desberdin (aldaerak aparte, noski) eskaintzen zaizkigu testuotan. Zalantzarik gabe, *prodigo* maileguaren aukera da erabiliena, askogatik gainera: 100 testutan agertzen zaigu hitz hori. Maiztasun askoz txikiagoa dute gainerakoek: *barreiat* eta *barreiatu* (5 aldiz), *barreiatzaile* (4 aldiz), hiruna testutan *despendius, galdu, igorle* eta *igortzaile*, bi bider *arlotatu, enpoiltzaile, gastatzaile, gastos, hundus, ondasun-xahutzaile* eta *prodigal*, eta lekukotasun bakarra dute hitz hauek: *beirugabe, enplegatzaile, errebelatu, fundibitail, funditzaile* eta *gaizki enplegatzaile*.

Adibide gehiago eskain daiteke, baina uste dugu emandakoarekin nahikoa izan daitekeela gorago baieztatua frogatzeko.

#### **4.- Hiztegietan lekukotasun urria duten hitzak**

Testuotan irakur ditzakegun hainbat hitzek ez dute sarrerarik gaur egun eskura ditugun hiztegi guztietan. Gure azterketarako, nagusiki hiru hiztegi kontsultatu ditugu: Lhanderena (L), Azkuerena (A) eta Orotariko Euskal Hiztegia (OEH). Hauetaz gain,

<sup>3</sup> Testuaren buruan honela dio: *Parabole de l'Enfant prodigue racontée à la veillée, en basque, par un brave vieillard, ménétrier*. Eta itzulpenari dagokionez, honela diosku Xarles Videgainek Bourciez-en testu-bildumari egiten dion sarreran (Aurrekoetxea & Videgain 2004): “Egia da ez zuela fidelki itzuli, eta edergailu gisa edo funtzio fatikoa indartzeko elementu zenbait sartu zituela delako soinu-jole zaharrak, itzulpen hutsa baino luzeagoko testu interesgarria eskaintzen baitigu. (...) Itzulpen xoil izan gabe, bertsiogokitua egin zuen gure soinulariak eta bildumari neholako makurrik ez dio ekartzen”.

begiraturen bat edo beste ere egin diogu Junes Casenave-Harigileren (Cas) zubererako hiztegiari.

Ondoren, hortaz, hiztegi nagusi horietatik batean soilik datozen hitzak aipatuko ditugu, interesgarrienak iruditu zaizkigunak. Ia gehienetan, pentsatzekoa denez, OEH da hiztegi hori. Ez da ahaztu behar Azkuek eta Lhandek haien printzipio eta aurreiritziengatik hainbat hitz baztertu zituztela beren hiztegietan.

Horra aukeratutako hitz-zerrendatxoa (beltzez doa hitza; ondoren zein hiztegitan agertzen den, gero testuetako adibideak, hurrengo jatorrizko bertsioko frantsesezko hitza eta, azkenik, bilduma honetako gainerako testuetan ematen diren zenbait ordain):

**abilamendu:** OEH-n bakarrik.

Testuingurua: *Ekharracozie behala **abillamendu** pullit bat* (1280-Behaskane-Laphizketa).

Fr. veste.

Gainerakoek: *bezti, beztimenta, arropa, palto, maripulis...*

**ahuntzume:** Itzulpen libre. OEHk bakarrik **antxume** sarreraren aldaera gisa.

Testuingurua: *Aïnitz hurte aïetan serbitçacen çaitut, es naiç. secular cure manamenduen contra gan, eta ez naiçu secular **auntzume** bat eman nere lagunekin besta eguiteco* (1208-Hendaia)

Fr. chevreau.

**bolatu:** OEH: **bolatu** (trans. e intrans.) ‘volar, sostenerse y desplazarse en el aire’.

Testuingurua: *Utçi içan çuen béré burua erortcerat kayola baten gainerat behatcen çuelaric leihotic arinki **bolatcen** ciren choriac* (1194-Mugerre)

Fr. voler.

Gainerakoek: *hegaldata, hegaldakatu, hegaldaka ari...*

**deiadartu:** OEH: **deiadartu, gedarritu** ‘llamar’.

Testuingurua: *Zein da bada arrabots hau? **deiadartzen** du juramentuka* (1202-Donibane Lohizune).

Fr. s’écrier.

Gainerakoek: *oihu egin, erran...*

**finfarrerria:** OEH: **finfarrerria** ‘fanfarronería’ (adibide bakarra).

Testuingurua: *Egune gutitane barnène, sémé gaïchtoua jeune çuçune hérritic **finefarrériàrékine**, éta érrane gabé adio ihouri* (1251-Ainharbe).

Fr. (en faisant le) fier.

Gainerakoek: *fier, azkar...*

**hegaldazale:** Hasieran hurrengo atalean sartu genuen, izan ere A-L-OEH hiztegietan ez baita jasotzen hitz hau. Baina gero ohartu gara zubereran arrunta dela (Cas: **hegaltazale** ‘volant’)

Testuingurua: *Gai batez, zabela hutzik, bere buria erortera utzi zian hoki baten gagna, zo zelarik leihotik tchori arhinski **hegaltazaler** (1344-Atharratze-Sorholüze); *Gai batez, sabéla hutsik, béré buria uzten du értortera zuzulu baten gagna, so zélarik leihoti tchori alagéraki **hégtaltazaler** (1254-Barkoxe); *Gai batez sabela huxik, értortera uzten dizu béré buria escabéla baten gagna, soguitiarekin léihotik tchori arhinki **hégtaltaliak** (1258-Garindaine)***

Fr. voler (qui volaient).

Gainerakoek: *hegaldatu, hegaldakatu, hegaldaka ari...*

- jaketa:** OEH: **jaketa, xaketa, xakete** (azken hau L-tik hartua).  
Testuingurua: *Ékharacocié fité **yaketa** poillit bat (1343-Uharte Garazi); Ekharacozie **yaqueta** poillit bat (1334-Zaro)*  
Fr. veste.  
Gainerakoek: *arropa, soineko, kamisola, barneko...*
- menos:** OEH: **menos** 1 ‘pequeño, simple, sencillo, modesto’. Gutxi gorabehera zentzu bera da, nahiz eta frantsesean ‘dernier’ den itzuli beharreko hitza.  
Testuingurua: *Trata nezazu zure sehietaric **menosena** bezala (1326-Donibane Garazi); Ékhar néçaçou çouré cerbitchari **ménosséna** béçala (1325-Urepele)*  
Fr. dernier.  
Gainerakoek: *azken.*
- napa:** OEH: **napa** ‘mantel’. Adibide bakarra (*Napa eder baten gaiñean / kuberta ezarria zatzan*).  
Testuingurua: *Sehiec obeditu zuten nagusiari eta ezarri zuten mahainaren gainean **napa** eder bat (1230-Mehaine); Mutilec obeditu çuten béré nausiari eta eman çuten **nappa** eder bat mahainean (1194-Mugerre).*  
Fr. nappe.  
Gehienek: *dafaila.*
- nezesario:** OEH: **nezesario, nezesari** ‘necesario’.  
Testuingurua: *Handisqui oguen ukhen niçun, éta **nésésari** duçu puni néçaçun, badaquit ounxa (1355-Ligi-Atherei); **Nesesario** da youan nadin eta ikous dezadan herri (1227-Hazparne).*  
Fr. il faut.  
Gehienek: *behar (dut).*
- non zer:** OEH: **non zer** ‘qué dónde, qué y dónde, qué en cada sitio’. Testuan antzeko adiera du, baina ez dakit estuki berbera den.  
Testuingurua: *Khantouz ari guitouc éta ouros guitouc, écic baitougou **nountzer** (1299-Iholdi).*  
Fr. (nous avons) de quoi.  
Gainerakoek: (*badugu*) *zertaz, zergatik, zeren...*
- presatu:** Testuan **prezatu** da sarrera. Itzultzaileak gehitzen duen hitza da, baina **prezatu** balitz, ez dator bat hiztegiek **prezatu/preziatu**-ri ematen dioten adierarekin (OEH: 1 ‘apreciar, estimar’; 2 ‘valorar, poner precio’, etab.).

Aldiz, **presatu** izanik, OEH-n badu ‘urgente’ adiera, eta adjektibo funtzioa duen partizipio gisa, gure testuan bezala.

Testuingurua: *Cembait aldiz haren gozia hain handi eta hain **prezatur** zen non gogo hunez yanen baitzituen cembait hosto eta fruitu usteldu, cherriec gaztatzen zustenarik, bainan nehorc etzakon deüs ematen* (1271-Amenduze).

**prodigal:** OEH: **prodigal** “Asotus, *galdua, neurrigábea, [...], prodigala, erhoa*”.  
Testuingurua: *Haour **prodigala*** (1215-Jatsu (Uztaritze)); *Haur **prodigala*** (1223-Itsasu).

Fr. prodigue.

Gainerako testuetan ematen diren ordainetarako ikus 3. puntua.

**sobranio:** OEH: **soberania, sobrania, soberanio, sobranio**. Batez ere izen gisa: 1 ‘exceso, exageración (algunos ejs. tras sust. indet. podrían tbn. ser interpretados como ‘excesivo’); 2 ‘en exceso, mucho’; 3 ‘excedente’; 4 ‘exagerado’.

Pentsa daiteke testuko adiera hortik doala, baina beharbada ez da gauza berbera.

Testuingurua: *Haour **sobranioa*** (1343-Uharte Garazi).

Fr. prodigue.

Gainerako testuetan ematen diren ordainetarako ikus 3. puntua.

**zarrota:** OEH: **zarrota** ‘prenda que se emplea cuando se quita la chaqueta’.

Mailegua (fr. sarrau).

Testuingurua: *Çatoste icousterat ekhar çoçoue fite **sarrota** poullit bat* (1203-Azkaine)

Fr. veste.

Gainerakoek: *bezti, beztimenta, arropa, palto, maripulis...*

## 5.- Hiztegietan agertzen ez diren hitzak

Ziurrenik, puntu hauxe da artikulu honetan baliorik handiena izan dezakeena. Ondoren zerrendatzen ditugun hitzen artean hauetarik aurkituko dugu: mailegu gordinak, hitz ezagunen erakarriak, zalantzazkoak diruditen batzuk, etab. Horra zerrendatxoa:

### **alokantza (alokantzan eman):**

Testuingurua: *Zembait hilabeteren buruan behar izan zituen saldu bere phildak emazte zahar bati eta bera sehi bezala **alokantzan eman*** (1307-Irisarri)

Fr. se louer.

Gainerakoek: *jarri, alokatu, engaiatu...*

### **arkilatu:**

Testuingurua: *Cembait hilabétéren bourouan béhar oukhan citian saldou béré arropac émasté çahar bati éta béré bouroua **arkhilatou** mouthil içatéco* (1325-Urepele).

Fr. se louer.

Gainerakoek: *jarri, alokatu, engaiatu...*

**arrandatu:** Landuchio-ren hiztegian (1562) **arrendadu** ‘alquiler’. L & OEH: **arranda** ‘renta, tributo’.

Testuingurua: *Çombeit hilabeteren burian saldu behar içan citin bere phildac emazteki çahar bati eta bere buria arandatu muthil izaiteco* (1233-Donamartiri)

Fr. se louer.

Gainerakoek: *jarri, alokatu, engaiatu...*

**azkentan:** Testuan horrela dator garbi, baina dudazko formatzat jotzen dugu (egileak **azkenian** idatzi nahi ote zuen?).

Testuingurua: *Azkentan, nigarrac begiretan, hedatu zascon besoac, eta lephotic lotziarekin eman zacon pot gozo bat* (1286-Garruze)

Fr. enfin.

Gainerakoek: *azkenean, hondarrean, enfin...*

**beirugabe:** Hau ere dudazkotzat jotzen dugu.

Testuingurua: *Haur Beirougabia* (1338-Lakarra) (l'enfant prodigue).

Gainerako testuetan ematen diren ordainetarako ikus 3. puntua.

**besta:** OEH: **bezt** ‘vestido’.

Testuingurua: *Çaousté ikoustéa ékarakozie vesta éderra* (1268-Donapaleu); *Çaousté ikoustéa, ekarakozie vestat éderra* (1269-Donapaleu); *Zaurte ikhustera; ekhar acozie fite vezta polit bat* (1305-Hozta)...

Fr. veste.

Gainerakoek: *bezt, beztimenta, arropa, palto, maripulis...*

**bozkalentziatu:** L-A-OEH: **bozkalentzia** ‘gozo grande, regocijo’.

Testuingurua: *Nahi baduk ala ez, behauk kantatu hic ere eta bozkalentziatu gurekin, zendako hire anaia hila zena berriz bizitara duk, yaio baliz bezala* (1316-Baigorri)

Fr. se réjouir.

Gainerakoek: *alegeratu, bozkariatu, bozkariotan izan...*

**enpoiltzaile:** L-A-OEH: **enpoildu** (A-L **enphoildu**) ‘destruir’.

Testuingurua: *Haur prodigua (enpoiltzalia)* (1336-Izpura); *Haur prodigua (enpoiltzalia)* (1329-Aintzila).

Fr. prodigue.

Gainerako testuetan ematen diren ordainetarako ikus 3. puntua.

**entzutu:** Bitxia bada ere, halaxe dator testuan (**izatu, egotu...** ezagunak dira Iparraldean).

Testuingurua: *Moutilek entzoutou zouten beren naousia eta ezarri dafaila eder bat mahainaren gainean* (1227-Hazparne)

Fr. obéir.

Gainerakoek: *obeditu, sinetsi...*

**errebenitu** (< fr. revenir?). Zalantzazkoa deritzogu hitz honi.

Testuingurua: *Ikhusi zuenean heldu bidian bere semia dena icerdi eta erhautzac hartia, sangoa herrestan, nekez **erebenitu** zen* (1313-Donaixti-Ibarre)

Fr. croire (il put à peine le croire).

Gainerakoek: *sinetsi*.

**fantasuntzi:** L-OEH: **fantasiatsu**, **fantesiatsu** ‘capricieux, obstiné dans ses caprices’. **Urguilu**-tik **urguluntzi** sortu den bezala, antza denez hala **fantasia**-tik **fantasuntzi**.

Testuingurua: *Egun gutin burian, seme gachtua yuan zen herritic egitian **fantesuntziaina** eta nehorri adioric erran gabe* (1329-Aintzila)

Fr. (*en faisant le*) *fier*.

Gainerakoek: *fier*, *azkar*...

**fiertzia:** L-OEH: **fiertu**; **fiertasun** ‘orgullo, coraje’ (OEH). Izan daiteke, hala ere, **fiertze** aditz-izenaren forma mugatua.

Testuingurua: *Egun guthi gheroago, seme tzarra goan zen herritik **fiertzia** erakhutsiz, eta nihori adiorik eghin gabe* (1202-Donibane Lohizune).

Fr. *fier*.

Gainerakoek: *fier*, *azkar*...

**harda:** Mailegua.

Testuingurua: *Hilabété zoubaiten burian saldu béhar ukhen zitizun béré **hardak** emazté zahar bati éta acordatu mithil* (1258-Garindaine).

Fr. *hardes*.

Gainerakoek: *arropa*, *pilda*, *soineko*...

**izantate:** L-OEH: **izantza** ‘bien, posesión’.

Testuingurua: *Pharti çaçu çure **ıçantatia**, eta ekhaçu tokatcen caitana* (1209-Urruña).

Fr. *bien*.

Gehienek: *ondasun*.

**jamuseta:**

Testuingurua: *Ekhar ezozie bertan **jamüseta** ejer bat* (1385-Eskiula).

Fr. *veste*.

Gainerakoek: *bezti*, *beztimenta*, *arropa*, *palto*, *maripulis*...

**jelete:** Mailegua (fr. *gilet*).

Testuingurua: *Ekharzazie harrentzat laster **yelete** pulli bat* (1193-Lehuntze)

Fr. *veste*.

Gainerakoek: *bezti*, *beztimenta*, *arropa*, *palto*, *maripulis*...

**landets:** Ala **landetxe** ote?

Testuingurua: *Trabertsatsen ditou anhits **landets**, oïhanac, errekaç eta yiten hiri handi batetara* (1295-Ostankoa)

Fr. *lande*.

Gainerakoek: *alor*, *landa*, *larre*...



- logatu:** Mailegua.  
 Testuingurua: *Eta logatou mouthil isaiteko* (1295-Ostankoa); *Eta bere buia logatu bailet izateco* (1256-Sohüta); *Eta bere buria logatu mithiletako* (1267-Bildoze); *Eta bere bouria louatou içaiteco mouthil* (1308-Jutsi)  
 Fr. se louer.  
 Gainerakoek: *jarri, alokatu, engaiatu...*
- miseriatu:** OEhk badakar, baina ez aditz gisa, adjektibo funtzioa duen partizipio gisa baizik: **miseriatu** ‘miserable’.  
 Testuingurua: *Oguendun içan nunduçun, bena miseiatcen nunduçun çutaric hurun* (1264-Muskildi)  
 Fr. se languir.  
 Gainerakoek: *urtu, hiratu, pirundu, penatu, peritu, esmeriatu...*
- oihu-sakre:** **Sakre** hutsik badator hiztegieta (L-OEH: ‘juramentu’).  
 Testuingurua: *Zer da ba azantz hori? dio oihu-sakretan* (1307-Irisarri)  
 Fr. s’écria-t-il en jurant.  
 Gainerakoek beste itzuli batzuk: *oihu egiten du juramentuka, oihu egin zuen arneguz...*
- pildaje:** Hiztegieta (A-L-OEH) **p(h)ilda** bai, baina **pildaje** ez.  
 Testuingurua: *Hilabété soumbaiten burian, béhar ukhén sién şaldu béré pildajiac émasté chahar bati* (1284-Etxarri)  
 Fr. hardes.  
 Gainerakoek: *arropa, pilda, soineko...*
- pirundu:**  
 Testuingurua: *Içan nintçoun oguendoun, béna pirountcen ari nindouçoun ourhoun çouréanik* (1340-Mendibe); *Içan nintzan hoben dun, bاینan piruntzen ari nintzan çutaric urrun* (1322-Irulegi); *Izan nintzan hobendun, bainan piruntzen (hurtzen) ari nintzan zure ganic urrun* (1329-Aintzila)  
 Fr. se languir.  
 Gainerakoek: *urtu, hiratu, penatu, peritu, esmeriatu...*
- putzutsu:** Bukaerako **-zu** hori **-tsu** izango da? (zubereraz bai, **-zü** = **-tsu**, baina testu bakarra Jatsukoa da). Hala izanik, dena dela, itzulpenak ez du ematen oso zuzena denik.  
 Testuingurua: *Traversatzen dizi anhitz leku putzuzu, oyhanak, hur haundiak* (1337-Jatsu (Donibane Garazi))  
 Fr. lande.  
 Gainerakoek: *alor, landa, larre...*
- soin-pilda:** Bi hitz ezagunez sortutako hitz elkartua.  
 Testuingurua: *Yin zarete haren ikhustera, ekhar ezazue soinpilda pullit bat* (1271-Amenduze)  
 Fr. veste.  
 Gainerakoek: *bezti, beztimenta, arropa, palto, maripulis...*

**tiroir, tiruar:** L-k bakarrik dakartza **tirenta/tireta** (azken hau hobetsiz).

Testuingurua (18 testutan agertzen da): *Guero idekitcen duellaric tiroir bat, partitu çuen béré ontassuna eta eguin cituen hortaric bi pharte bardinac* (1194-Mugerre); *Guéro idékiric tirouar bat, partitou souén béré ontasouna éta éguin isan sitouén bi parté bardinac* (1222-Kanbo); *Guero zabalduz tiruar bat, partayatu zien bere ontasuna, eta eguin hartaric bi pharte berdinac* (1272-Amorotze)

Fr. tiroir.

Gainerakoek: *tireta, tirader*<sup>4</sup>...

## 6.- Hiztegiatan aldaera desberdinetan agertzen diren hitzak

Testuotan jasotako hitza hiztegiatan agertu bai, baina zenbaitetan aldaera desberdinetan agertzen da. Nolanahi ere, aldaeren kontu honek azterketa sakonagoa beharko luke.

**alegriatu:** Aldaera hau ez dut inon aurkitu. L: **alageratu**; OEH: **alegeratu** (& **alageratu, alegratu, alegeretu**).

Testuingurua: *Es othe da behar alegriatu?* (1208-Hendaia)

Fr. se réjouir.

Gainerakoek: *alegeratu, bozkariatu, bozkariotan izan*...

**behaztun** ('eraztun'): Aldaera hiztegiatan ez dator. OEHk, esaterako, 22 aldaera dakartza, baina hau ez. Baliteke **behatz** hitzarekin lotura izatea.

7 testutan dator **behaztun** (herri hauetan: Behauze (2 testu), Amorotze, Arberatze, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Gamue-Zohazti): *Ekhar zakozie fite barneko pollit bat, ezar akozie behaztun bat ehian eta oski berriak zangoetan* (1275-Arboti-Zohota); *Ekharrakozie fite besta pullit bat, ezarrazkotzie behaztuñ bat ehian eta zapata berriak zanguetan* (1279-Behauze)

Fr. anneau.

Gainerakoek: *eraztun*.

**ben:** OEH: **bien** 1. 'Bien' (interj. de aprobación) / (Expresando resignación).

Testuingurua: *Eh ben* (1232-Donostiri); *E bén* (1265-Urdiñarbe)

Fr. Eh bien.

Gainerakoek: *bien* (edo beste aukera desberdin bat).

**boltaka:** Aldaera hau ez dator hiztegiatan. Arruntena **bultaka** da, eta OEH-k **builtaka** eta **bueltaka** ere ematen ditu.

Testuingurua: *Hambertzétaraino gosé cen boltaca nun yanen baitzituen gogotic cherriec yaten diuzten açã hosto eta fruitu usteldu hec* (1212-Ahetze)

Fr. quelquefois.

Gainerakoek: *batzuetan, zenbait aldiz*...

**haborotz:** Badirudi **harrabots/habarrots**-ekin zerikusia duela.

<sup>4</sup> Hiztegi Batuan **tiradera** hobetsi da. Gure testu-bilduman, aldiz, beti da **tirader**.

L: **harrabots/habarrots** ‘bruit, vacarme’. A: **abarrots** ‘todo ruido estridente’, **harrabots** ‘ruido’. OEH: **abarrots, harrabots, errabots** ‘ruido (generalmente grande), estrépito, fragor’. Hiztegi Batuan **harrabots** aldaera hobetsi da.

Testuingurua: *Cer da **haborotz** haou? oihou in cicin youratouz. Ouste dout yostatcen ciesten hemen, eniz goitche yiten. Ehotou cirea aita?* (1328-Ahatsa-Altzieta-Bazkazane)

Fr. bruit.

Gehienek: *azantz*.

**hebaildu:** Ala **hebaili**? Ziur asko **hebaindu**-rekin izango du zerikusia, eta onenean idazkera okerra izan daiteke. **Hebaindu** hiztegi guztietan: ‘debilitar(se), cansar(se), rendir(se) de cansancio’ (OEH).

Testuingurua: *Ez nezazula deit gehiago zure seme, ibil nezazu zure azken sehia bezala, hobendun izan niz, bainan zure ganik urrun **hebailtzen** ari ninzan* (1316-Baigorri).

Fr. se languir.

Gainerakoek: *urtu, hiratu, pirundu, penatu, peritu, esmeriatu...*

**planugarri:** OEHk soilik eta beste aldaera batzuk: **pleinigarri, plainagarri** ‘digno de lástima, desgraciado’.

Testuingurua: *Ordian, izantzen hanich **planugari*** (1344-Atharratze-Sorholúze)

Fr. malheureux.

Gainerakoek: *malurus, dohakabe...*

**treinatu:** Frantsesetikoa mailegua. OEHk **trainatu** ‘arrastrar’ dakar soilik.

Testuingurua: *Icousi çouenian etortcen bidean bere semea dena estalia icerdiz eta erraoutsez ichterra **tregnatouz** penaz sinhetsi çouen* (1203-Azkaine)

Fr. traînant.

Gainerakoek: *herresta, herrestan, herrestaka...*

**ttuttu:** **Ttotto**-ren aldaera.

Testuingurua: *Gaou batez, sabéla houtsa, béré buria utci cien érortea **ttoutou** batén gaira, so [égu]itiaikin léihotic ahinki hégaldatcen cien chorier* (1288-Ilharre).

Fr. escabeau.

Gainerakoek: *alki, kaxeta, eskabel...*

## 7. Hiztegietan adiera desberdinetan bilduta dauden hitzak

Gure testuotako hainbat hitz hiztegietan ere badatoz, baina adiera desberdin(ar)ekin (batzuetan adiera garbi da desberdina, beste batzuetan ez hain garbi). Puntu honi dagokionez, ez dugu emaitza txundigarrik lortu. Eta ondoren zerrendatzen ditugunetan beharbada izango da bat baino gehiago zerrendatik kentzeko modukoa.

- aipamen:** Hiztegieta bai. Beharbada hemengo adiera bera da, baina frantsesez ‘reproche’ denez...  
 Testuingurua: *Nehorc estézacotéla éguin démendren aip(h)aménic* (1339-Lekunberri)  
 Fr. reproche.  
 Gainerakoek: *erreprotxu, gaizki, mehatxu, mespretxu, erasia...*
- arlotatu:** Hiztegieta badator, baina ez du ematen adiera berbera duenik. Esaterako, OEH: ‘hacerse haragán’; ‘s’encanailler’...  
 Testuingurua: Lapurdiko bi testutan agertzen zaigu: *Haur arlotatoua* (1201- Donibane Lohizune); *Haour arlotatoua* (1206-Ziburu).  
 Fr. prodigue.  
 Gainerako testuetan ematen diren ordainetarako ikus 3. puntua.
- bozkatu:** OEH-L: **bozkatu**, baina ‘votar/voter’ adierarekin bakarrik.  
 Testuingurua: *Nahi içan deçakan ala ez béharco douc hic éré canta deçakan éta boska hadien gourékin* (1226-Zuraide).  
 Fr. se réjouir.  
 Gainerakoek: *alegeratu, bozkariatu, bozkariotan izan...*
- enpoildu**<sup>5</sup>: L-A: **enpoildu**, OEH: **enpoildu** ‘destruir’.  
 Testuan adiera ‘gastatu, xahutu’ da: *Trebesatu zitien landac, oyhanac, uhaitzac, eta yintzen hiri handi batera, nun impoildu beitzien bere dihuru guzia* (1334-Zaro)  
 Fr. dépenser.  
 Gainerakoek: *gastatu, despendiatu...*
- errabia (gose errabia):** beharbada ez du merezi sartzea, baina erabilera berezi samarra delakoan gaude. Hiztegieta adierak: L: rage [esp. *rabia*]; OEH: 1- rabia, furia, cólera; ansia, empeño; afición, pasión.  
 Testuingurua: *Zonbait orduz, hain zuen gose errabia handia, non gogotik janen baitzitzen zerrieri aurthikitzen ziozkaten haza ostoa eta fruitu usteldialk* (1321-Bidarrai)  
 Fr. grand faim.  
 Gainerako gehienek: *gose handia*.
- errebelatu:** Hiztegieta badator, baina agian adiera ez da bera. L: s’écarter; A: ladearse, desviarse; OEH: 1- Perderse, extraviarse, desviarse; descarriarse, errar. 2- rebelarse.  
 Testuingurua: *Haur errebelatia (prodigua)* (1280-Behaskane-Laphizketa)  
 Gainerako testuetan ematen diren ordainetarako ikus 3. puntua.
- funtsitu:** Hasteko, soilik OEH-n dator **funtsitu**, **funtsatu** ‘enfoncez’, eta ez du ematen gure testuan adiera bera duenik..  
 Testuingurua: *Noiz ere ikhouzi beytzien biden gagnien bere semia yiten izerdiz eta erhaüttez fountzitoua, herreztatzen zielarik zangoa, nekez zinhetziz zouen* (1277-Arrueta-Sarrikota).  
 Fr. couvert.

<sup>5</sup> 4. puntuan eman dugun **enpoiltzaile** ere sar daiteke hemen, baina hiztegieta **enp(h)oildu** besterik ez dugu.

Gainerakoek: *bete, estali, kukutu...*

- gaspilatu:** OEH-n bada **gaspilatu, gatzpiletu**, baina ez du ematen gauza bera denik. Adibide hau dator OEH-n: “*Eztirek gaizki gatzpiletu, no te han robado mal (AN)*”.  
 Testuingurua: *Dembora guthien onduan, seme gastenac, bildueta cituen guçiac, gantcen hiri urrun baterat. Bici çar bat ibilli çuen eta cituen guçiac laster **gaspillatu** cituen (1208-Hendaia)*  
 Fr. dépenser.  
 Gainerakoek: *gastatu, despendiatu...*
- lejitimo:** OEHn badator, baina beste adiera batean: ‘legítimo, auténtico’.  
 Testuingurua: *Phartizazu zure huntasuna, eta eman eni neure **lejitimua** (1334-Zaro)*  
 Fr. (donnez moi) ce que je dois avoir.  
 Gainerakoek: *behar dutana, heldu zautana, yiten çaana, zuzena...*
- pasta:** Hiztegietan (L-OEH) badator, baina ‘material, materia’ adierarekin.  
 Testuingurua: *Khantatzen ari gutuc éta irous gutuc, céren éta béitugu **phasta** (1355-Ligi-Atherei)*  
 Fr. (Nous chantons et nous sommes heureux, car nous avons bien) **de quoi**.  
 Gainerakoek: *(badugu) zertaz, zergatik, zeren...*
- santxitu:** OEHk bakarrik: **santxitu**. Adibide bakarra: *Biak zütiet eneganat / algarrekilan jinazten, / Eüskal Herria berhala / odolez **santxi** dezazien.* ‘Pour qu’immédiatement le Pays Basque soit ensanglanté par vos soins’  
 Baina ematen du gure testuetan beste adiera bat duela, bata bestetik oso urrun ez badaude ere.  
 Testuingurua: *Nouis eta ikhoussi beitician jiten biden gagnen bere semia oro **santxituic** icerdiz eta erhautxes (1351-Lakarri); Nouiz ere ikhousi beiticin jiten biden gagnen bere semia icerdiz eta erhauzez oro **sanxituric** (1252-Ürrüstoi-Larrabile)*  
 Fr. couvert.  
 Gainerakoek: *bete, estali, kukutu...*
- solas:** Mailegua.Hiztegietan badator, baina adiera desberdinarekin. OEHk, halere, badakar ‘tema, asunto’ adiera, eta hori zerbait hurbiltzen da testuan duen esanahira.  
 Testuingurua: *Khantatzén dic éta gituc irus, cén éta béitu **solas** (1285-Gabadi)*  
 Fr. Nous chantons et nous sommes heureux, car nous avons bien **de quoi**.  
 Gainerakoek: *(badugu) zertaz, zergatik, zeren...*

## 8. Hiztegietan lokalizazio desberdinarekin bilduta dauden hitzak

Testuotako hitz batzuk hiztegietan agertzen badira ere, horietan ematen den euskalki-erreferentzia eta gure testuena desberdina da. Horra adibide batzuk:

**afermatu:** L-k bakarrik dakar hitz hau (**afermatü** (S) ‘prendre en bail’). Testua, dena dela, Armendaritzekoa da (Iholdiko kantonamendua (Nafarroa Beherea)).  
 Testuingurua: *Éta béré bouroua **afermatou** mouthil içaiteco* (1302-Armendaritze).  
 Fr. se louer.  
 Gainerakoek: *jarri, alokatu, engaiatu...*

**gita:** Azkuek hitza badakar ‘ahate’ adierarekin, baina soilik Erronkariko Uztarrotzeko erreferentziarekin. Gure testuetan Nafarroa Behereko 12 adibide ditugu.  
 Testuingurua: *Hartu ahalko ere duzketzie ollarrac, **gitak**, eta ekharri ahalko chaalbat hilzeko hun dena* (1275-Arboti-Zohota); *Hartuco ahal tuzie éré oillarrac, **guitac**, eta ekhartzen ahal duzue aratche bat ona hiltzeko* (1271-Amenduze)  
 Fr. canard.  
 Gehienek: ahate.

**minatze:** OEH: *biñatze, miñatze, minatze* ‘viñedo’. Eta hiru adibide datoz, hirurak zubererakoak. Gure testu-bilduman dugun adibide bakarra, aldiz, nafarrera beherekoa da.  
 Testuingurua: *Aïta béré batcian sousoun finitcen béré liliein arrousatcen, bisitatcen cicin béré sartciak éta **mitgnaciak*** (1306-Ibarrola (Iholdi)).  
 Fr. raisin.  
 Gainerakoek: *mahatsondo, mahasti, aihen...*

## 9. Ondorioak

Lan honetan izan daitezkeen akatsak eta hutsuneak gorabehera, uste dugu Bourciez bildumako euskal testuetako lexikoaren azterketa honekin ekarpen polita egiten zaiela euskal lexikografiaren historiari eta Orotariko Euskal Hiztegiari.

Testuotako aldaera desberdinek eta hitz batzuen adiera desberdinek beren garrantzia izan badezakete ere, zalantzarik gabe hiztegietan agertzen ez diren hitzetan ikusten dugu baliorik handiena.

**Bibliografia**

- Aurrekoetxea, Gotzon eta Xarles Videgain (arg.), 2004, *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, ASJU-ren gehigarriak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Azkue, R. M., 1969 [1905-6], *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Casenave-Harigile, J, 1989, *Hiztegia français-eiškara. Züberotar eiškalkitik abiatzez*. Atarratze: Hitzak.
- Lhande, P., 1926, *Dictionnaire basque-français et français-basque (Dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*. Paris: Gabriel Beauchesne.
- Mitxelena, K., 1987-2005, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

## Artikuluian aipatutako lemak (letra biribilez eta beltzez aztertu direnak)

aberats.....3	beztimenta.....4, 6, 7, 8, 9
abilamendu.....4	bien.....10
adiskide.....3	biluzi.....3
afermatu.....14	bisiatu.....2
ahate.....14	bolatu.....4
ahuntzume.....4	boltaka.....10
aihen.....14	bortako.....2
aipamen.....12	bozkalentziatu.....7
aire.....2	bozkariatu.....7, 10, 12
aitortu.....3	bozkariotan izan.....7, 10, 12
akabatu.....2	bozkatu.....12
akordu.....3	dafaila.....2, 5
alegeratu.....7, 10, 12	deiadartu.....4
alegriatu.....10	delibero.....2, 3
alki.....11	denbora.....2
alokantza.....6	despendiatu.....2, 12, 13
alokatu.....6, 7, 9, 14	despendius.....3
alor.....8, 9	dohakabe.....11
amultsuki.....3	ederki.....3
arkilatu.....6	egitate.....3
arlotatu.....3, 12	enfin.....7
arrandatu.....7	engaiatu.....6, 7, 9, 14
arribatu.....2	engoitik.....3
arropa.....2, 4, 5, 6, 7, 8, 9	enplegatzaile.....3
arto.....3	enoiltzaile.....3, 7
atrebitu.....2, 3	entzutu.....7
azantz.....11	erasia.....12
azkar.....4, 8	eraztun.....10
azken.....5	erdietsi.....3
azkenean.....7	eretze.....3
azkentan.....7	errabia.....12
balentria.....2	erran.....4
bapo.....2	errebelatu.....3, 12
barneko.....5	errebenitu.....7
barreiat.....3	erreprotxu.....12
barreiatu.....3	erribera.....2
barreiatzaile.....3	eskabel.....2, 11
batzuetan.....10	eskaini.....3
behar (dut).....5	esmeriatu.....9, 11
behaztun.....10	espantu.....2
behi.....3	estali.....13
behin.....3	estatu.....3
beirugabe.....3, 7	ezagutza.....3
ben.....10	fantasuntzi.....8
besta.....7	fier.....2, 4, 8
bete.....13	fiertzia.....8
beztu.....4, 6, 7, 8, 9	finfarrerria.....4



fite.....	2	lejitimo.....	13
fundibitail.....	3	logatu.....	2, 9
funditzaile.....	3	lore.....	2
funtsitu.....	12	lukainka.....	3
gaizki.....	12	luze.....	3
gaizki enplegatzaile.....	3	mahasti.....	14
galdu.....	3	mahatsondo.....	14
ganbara.....	3	mainata.....	2
garrazki.....	3	malurus.....	2, 11
gaspilatu.....	13	maripulis.....	2, 4, 6, 7, 8, 9
gastatu.....	2, 12, 13	mehatxu.....	12
gastatzaile.....	3	menos.....	5
gastos.....	3	mespretxu.....	12
gita.....	14	minata.....	3
gose errabia.....	12	minatze.....	14
gose handia.....	12	miseriatu.....	9
gozatu.....	2	mixkandi.....	2
guardia eman.....	3	nagusitu.....	3
haborotz.....	10	napa.....	5
haizu izan.....	3	nezesario.....	5
haragi.....	3	non zer.....	5
harda.....	8	obeditu.....	7
hebaildu.....	11	obratu.....	3
hegaldaka ari.....	4, 5	oihu egin.....	4, 9
hegaldakatu.....	4, 5	oihu-sakre.....	9
hegaldatu.....	4, 5	ondasun.....	8
hegaldezale.....	4	ondasun-xahutzaile.....	3
herresta.....	11	otoi.....	3
herrestaka.....	11	palto.....	4, 6, 7, 8, 9
herrestan.....	11	partaiatu.....	2
hiratu.....	9, 11	pasta.....	13
histu.....	3	penatu.....	2, 9, 11
hondarrean.....	7	peritu.....	2, 9, 11
hundus.....	3	pilda.....	8, 9
igorle.....	3	pildaje.....	9
igortzaile.....	3	pirundu.....	9, 11
izantate.....	8	pitar.....	3
jaketa.....	5	planugarri.....	11
jarri.....	7, 9, 14	premu.....	2
jelete.....	8	presatu.....	5
juramentu.....	2	prodigal.....	3, 6
juramentuka.....	9	prodigo.....	3
kamisola.....	5	punitu.....	2
kartier.....	2	putzutsu.....	9
kaxeta.....	11	sakre.....	2
kokin.....	2	santxitu.....	13
kukutu.....	13	sarrota.....	6
landa.....	8, 9	setiatu.....	3
landets.....	8	sinetsi.....	7, 8
larre.....	8, 9	sobranio.....	6

soin-pilda.....	9	turnatu.....	2
soineko.....	5, 8, 9	umiltasun.....	3
solas.....	13	uros.....	2
tirader.....	10	urtu.....	9, 11
tireta.....	2, 10	xede.....	3
tiroir.....	10	xingar.....	3
tiruar.....	10	zapata.....	2
trabesatu.....	2	zenbait aldiz.....	10
tratatu.....	2	zeren.....	5, 13
treinatu.....	11	zergatik.....	5, 13
tripa.....	2	(badugu) zertaz.....	5, 13
ttuttu.....	11		